

Akta/Kronika.

Lezon Energia Komunitatea Eratzeko Prozesua

10. saio irekia.

Euskara Kultura Aretoa [2025/04/28]



1.- Deskribapena

1.1.- Oinarrizko informazioa.

- **Data:** Apirilak 28, astelehena.
- **Saioaren iraupena:** 2 ordu.
- **Ordutegia:** 18:00etatik 20:00etara.
- **Lekua:** Euskara Kultura Aretoa
- **Antolatzaileak:** Iratzerri eta Lezoko udala.
- **Dinamizazio taldea:**
 - Iratzerri eta Goiener

1.3.- Parte-hartzaileak: Lezoko bizilagunak norbanako bezala eta herri eragileak

- **Guztira:** 8 pertsona.

- **Genero/sexu banaketa:**

- Emakumeak: 2

- Gizonak: 6

Adinaren arabera:

< 19 urte: 0

20 – 29 urte: 1

30 – 39 urte: 1

40 – 49 urte: 2

50 – 59 urte: 3

60 – 69 urte: 1

2.- Saioaren helburuak:

1. Talde Juridikoak **estatutuen** egokitzapenak azaltzea eta Sustapen Taldean **onarpena Soziokrazian burutzea**
2. Kontseilu Errektoreko partaideak nola eratu adostea
3. Komunikazio taldeak **komunitatearen marken aukerak aurkeztea eta adostasuna lortzea Soziokrazian**

2.- Edukiak

2.1.- Iratzerriren azalpenak

Ekaitzek bileraren nondik norakoak azaldu ditu, helburuak eta erabaki gune eta batzarren inguruko gaia aurreratu ditu, gaur Oier Etxebarriak pilularik emango ez badu ere gai honen inguruan nola funtzionatzen den azalduko duela aurreratuz. Gaurko parte hartze baxuaren balorazioaren inguruko iritziak partekatu ondoren lan saioa abiatu da.

2.2.- Sustapen taldearen bilera

- Talde Juridikoak estatutuei onarpena eman aurretik aurkezpene burutu du azkeneko aldaketak azalduz eta arrazoituz. Barne arautegia definitzen hastearren beharra agerian geratu da bazkidetzen ezaugarriak sakonago definitu ahal izateko
 - Bazkidetza motan “Kontsumitzaile” hitza desagertu da, “Erabiltzaile” izango delarik. Gaia bazkide erabiltzaileen arteko berezitasunetan murgildu da. Kuotak, instalazioetan parte hartu ahal izateko baldintzak, lehetasunak, urteko kuotak...
 - Nahiz eta estatuen baitan ez egon, derrigorrezko ekarpenetan izandako aldaketak azaldu dira eta erabiltzaile zein laguntzaile, irabazi asmorik gabeko entitateen eta irabazi asmokoen artean diferentzia markatu da. Lehenek 100€ eta bigarrenek 500€ jartzea proposatu da.
 - Organu sozialei dagokienez Kontseilu Errektorearen funtzionamendua azaldu da eta Sustapen Batzordea erabakigune izatearen aukera aipatu dira. Kontseiluaren erabakiak bertan hartzeko aukera irekiaz.
- Komunikazio Taldeak Kunkana markaren logotipo 3 aukerak aurkeztu ditu eta eztabaida abiatu da. Azkenean baten aukera nagusitu da, baina ñabardura batzuk egitea proposatu da. Hurrengo saiorako ekartzen saiatuko gara.
- Kontseilu Errektorea eratzeke 7 kide + 3 erreserba behar dira eta gaur 8 lagun egonik guztiok egotea beharrezkoa ikusi da. Gaurko saiora etorri izan ezin dutenei gonbita luzatuko zaie. Datorren

astelehenean Maiatzak 5, eratze batzarra egingo litzateke. Ordurako deialdiarekin batera inprimaki bat helaraztea adostu da eratze aktarako datuak aurrerratu ahal izateko. Iratzerri arduratuko hortaz.

4.- Erabakiak

Sustapen taldearen erabakigunea lantzeko ariketa egin da. Oier Etxebarriak Soziokraziaren azalpena eman du eta ondorengo erabakiak hartu dira modu honetan:

- **KUNKANA** -ren Estatutuak onartu dira

5.- Hurrengo pausoak

Hurrengo bilera hurrengo astean egitea adostu da, **Maitzak 5 astelehenean**. Eratze Batzarra izango litzateke, Kontseilu Errektorea osatu eta izenpetzeko. Honekin batera natoritzara joan ahal izateko hitzordua hartuko du talde juridikoak. Notaritzara joaterako kapital soziala beharrezkoa da: 3000€. Iratzerrik udalari Sorkuntza prozesuko dinamizazioaren faktura igorriko dio bihar bertan eta Eneko Toledoren laguntzarekin.

Hurrengo saiorako zein Pilula edo hitzaldi eman erabakitzeko geratu da. Ea inskribatzea aurrera egiteko gai garen eta hurrengo saiorako estrategiak argitzen ditugun.

Tokia zehaztuko da deialdiarekin batera, baina printzipioz Euskara Kultura aretoan izango litzateke.